



2007 Memoria

CRL LHK
Lan Harremanen Kontseilua
Consejo de Relaciones Laborales

Legezko gordailua: BI - 1.707-08

Fotokonposaketa: Fotocomposición IPAR, S.C.
Zurbaran, 2-4 - (48007 BILBAO)

2007 Memoria

Lan Harremanen Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2008ko martxoaren 11ko bileran 2007ko ekitaldiko bere jardueraren Memoria onetsi zuen. Argitalpen honek Memoria horren testu osoa hartzen du bere baitan.

R. Borja de la Sota Gáldiz
Idazkari nagusia

Aurkibidea

Sarrera	7
Barne antolamendua eta osaera	11
Osoko Bilkuraren eta batzordeen jarduera	17
Kontsulta jarduera	23
Preco, gatazkak erabazteko prozedurak	29
Azterlanak eta argitalpenak	43
Instituzio jarduera	51
Aurrekontuei buruzko informazioa	55

Sarrera

Instituzio publiko baten jardueraren memoria onartzeak funtsean gizartearekiko bete-beharra betetzea da, modu horrexetara ematen baitira, instituzioak euskarritzat dituen baliabide publikoen erabilera eta, beraz, errendimendu eta erabilgarritasunaren gaineko kontuak.

Lan Harremanen Kontseiluaren oraingo egoera zaila da eta hori ez da isileko kontua inorentzat. Ondorioz, haren jarduerari buruz hitz egiteko jende aurrera agertzeak, lehendabizi, errealitateari muzin egin gabe, egoera zail hori aitortzea dakar aldean ezinbestean. Urte honen hasieran, kargudun berriak izendaturik, Kontseiluaren egoera zerbait normalizatu den arren, arazo nagusiek beren hartan diraute, haien artean batez ere, gehiengoa duen sindikatua bertan ez izatea aipatu behar delarik. Honek guztiak, zalantzarik gabe, gaitasuna kentzen dio organo honi, haren zeregin nagusia, ordezkartzarik handieneko eragile sozialen arteko elkarrizketa antolatu eta, elkarrizketa horretatik abiataturik, gurea bezalako gizarte konplexu eta modernoaren markoan lan harremanen garapena zuzendu beharko luketen oinarrizko adostasunak lotzea baita.

Ez dugu hau guztia ezkutatu behar eta haren ondore eta ondorioak ere ez ditugu diren baino txikiago agerrarazi behar, baina hau horrela delarik ere, ziur nago, aipatu berri dudan gizarte moderno eta konplexuak ezinbestekotzat duela eragile sozialen arteko elkartzeko gunea den organo bat. Unean uneko zailtasunak alde batera utzirik, ez dirudi elkarrizketari betiko uko egin eta elkarrizketa ahalbidetzeko eta dinamizatzeko sortutako egiturak deuseztatzea, geure buruari eman diogun gizarte eta lan harremanetarako ereduari eustearekin elkargarria edota, besterik gabe, koherentea denik.

Egia da, gauzak ontzeko prozesuak batzuetan luzeegiak izaten direla, baita haien emaitzak lor daitezkeeneko zalantza eragiteraino ere, areago eragingarritasunaren eta



berehalako errendimenduaren ideiak barru-barruan dituen gizarte batean, baina benetakoa eta irudizko zailtasunak gora behera, zelan edo hala elkar ulertzera kondenaturik gaude —zorionez, egon ere.

Bien bitartean, guk badugu betebeharririk: gogoeta bizirik mantendu eta marko aberatsagoan garatzeko behar diren tresnak hobetzea eta elkarrizketaren jarioa areagotuko duen ezaguera sortzea, alegia. Lan Harremanen Kontseiluak ildo horretan jarduten du, normaltasun erlatiboan, jardun ere: azken urteetan bere jarduera gauzatu deneko eremuak finkatu eta jarduera horren emaitzak eran eta edukian hobetzen saiatzen ari da.

Kontsulta funtzioa gauzatzean, 2007 urtean zehar, hamabost arau proiekturi dagozkien hamar txosten sorrarazi ditu; txosten hauek guztiak Kontseiluaren web orrian aurki daitezke eta orain, aurreko urtean hasiera eman genion praktika bati eutsiz, Memoria honekin batera banatzen den liburuki batean argitaratu dira. Kontseiluaren kontsultazko esku hartzea eskatu zen kasu guztietan, txosten hauek erakunde eskatzaileari bidali zitzaizkion. Batzuetan txostenak, zegokion arau edo plana aztertu eta Batzordeko kide guztiek batera hari buruz gogoeta egin ondoren ateratako iritzi desberdinak islatu eta adierazten zituen; beste batzuetan, honezaz gainera, Kontseilu osoak berak daukan iritzia adierazten duen irizpen bat ere bazekarren.

Halaber, 2007ko ekitaldian zehar Kontseiluak, errealitate soziolaboralaren jarraipenerako plana osatzen duten hileko, hiruhilekoko eta urteko txosten soziolaboralak presatatu eta argitaratu ditu berriro ere. Horrekin batera, negoziazio kolektiboaren egoera etengabe aztertzen du eta urtearen hasieran egiten duen berariazko txosten batean haren emaitza nagusiak jaso. Azterlan multzo hau da, izan ere, Kontseilua arautzeko legeak ematen dizkion funtzioetako bat gauzatzearen emaitza. Atal honi dagokionez, ezin genezake aipatu gabe utz, hitzarmen kolektiboak berriztatzeko prozesuetan nolabaiteko hobekuntza nabari dela; denborak esango digu irudizko joera aldaketa hau abagune honi dagokion ala iraunkorra den.

Azterketa funtzio honekin loturik, banatu berri dugun EAEko sindikatu hauteskundera prozesuei buruzko berariazko txosten bat egin dugula aipatu behar dela uste dut. Azterlan horren aurkezpenean esan genuen bezala, azterlan hau eremu soziolaboralak berezkoak dituen zenbait gairi buruzko txosten talde bateko lehena izatea nahi dugu; horrela, gizarte eta lan harremanen inguruko gai zehatzei buruzko analisia ardaztat izango duen lan ildo berria sortu eta ezari-ezarian sendotuz joango gara.

Azkenik Kontseiluak Preco Lanbide arteko Akordioa ere kudeatu du, akordio hori sinatu zutenek eman zioten ardura beteaz. Eremu honetan gaingitu gabe dugun gaia negoziazioko gatazkarik esanguratsuenak, hau da, batez ere hitzarmen kolektiboak negoziatzearekin lotuta dauden gatazkak erakartzea dugu oraindik ere. Baina bestela, Preco lan gatazka kolektiboak ebazteko tresna naturaltzat finkaturik dago. Arlo honetan daukagun helburua, bai hitzarmenak negoziatzeko batzordeak eta bai sektoreko batzorde paritarioak Kontseilura erakartzea da, horrela baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera eta haien jarduerari laguntza emateaz gainera, gatazkak, negoziazio zein aplikazio fasekoak izanik ere, Precoko prozeduretara erakartzeko sinergia positiboak sortuko direlakoan.



Ez nuke amaitu nahi Memoria honen sarrera labur hau, zerbait azpimarratu gabe: hemen jasotzen dena Lan Harremanen Kontseilua osatzen dugun guztien eguneroko ahalegin eta lanen emaitza da eta eskerrak eman nahi dizkiet espresuki guztiei, zein bere arduraren arabera, emaitza hori hobetzeko saiatzen jarraitzen dutelako.

Tomás Arrieta Heras
Lehendakaria

**Barne antolamendua
eta osaera**

1. Barne antolamendua

Lan Harremanen Kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoaren organoa da eta irailaren 30eko 9/1981 Legeak sortu zuen, oraingo bere araudia ekainaren 27ko 11/1997 Legean jasorik badago ere. Eusko Jaurlaritza eta Legebiltzarraren gai soziolaboralarako kontsulta organoa da eta honezaz gainera sindikatu erakunde eta enpresaburu konfederazioen arteko etengabeko elkartzeko gune eta elkarrizketarako organoa ere bada.

Kontseilua alderdi bikoia eta paritarioa da, sindikatu erakunde eta konfederazioek hautatutako zazpi izeneko kideak eta enpresaburu erakundeek hautatutako beste horrenbeste kideak osatzen dutelarik. ELA sindikatu erakundeak, hiru kide hautatzeko eskubidea zuenak, 2007ko ekainaren 12ko ere idazkian adierazi zuenez, hautapen hauek egiteari espresuki uko egin zionetik, Kontseilua sindikatuen aldetik Euskadiko CCOOek hautatutako bi kideak, LABek hautatutako batek eta Euskadiko UGTk hautatutako beste kide batek osatzen dute; eta enpresaburuen alderditik, zazpi kideak Confedebaskek, Euskal Enpresarien Konfederakuntzak hautatzen ditu, uztailearen 23ko Lan Harremanen Kontseiluko kideak bere kargutik kendu eta kide berriak izendatzeko lehendakariaren 3/2007 Dekretuak xedatzen duenez.

Kontseiluaren lehendakaria eta idazkari nagusia ere Kontseiluko kide dira, botoa emateko eskubiderik ez badaukate ere.

Kontseiluak, sindikatu erakunde eta enpresaburu konfederazioen etengabeko elkartzeko eta elkarrizketarako organoa den aldetik, honako funtzio hauek ditu betetzeko:

- Gai zehatzei buruzko lanbide arteko akordioak erraztea.
- Negoziazio kolektiboa sustatzea eta hitzarmen kolektiboen egitura egokia bultzatzea.
- Lan gatazketan bitartekotza eta arbitraje funtzioak sustatzea.



Eta instituzio parte hartze instantziatzen:

- Jaurlaritzari edo baren sailei lan politika gaiei buruzko proposamenak egitea.
- Bere ekimenez lan gaiei buruzko irizpen, erabaki, txosten edo azterlanak egitea.
- Gainera, Kontseiluak Eusko Jaurlaritza eta Legebiltzarrarentzako gai soziolaboralei buruzko kontsulta jarduera gauzatzen du.

2. Kontseiluko kideak

Gorago aipatu den Lehendakariaren uztailaren 23ko Dekretuak xedatzen duenez, 2007ko abenduaren 31n Kontseiluaren osaera honako hau zen:

LEHENDAKARIA: Martin Auzmendi Aierbe jauna.

IDAZKARI NAGUSIA Tomás Arrieta Heras jauna.

IZENKO KIDEAK:

SINDIKATUEN ALDETIK:

Euskadiko Langile Komisioen Sindikatu Konfederazioak (CCOOK) hautaturiko kideak

Titularrak:

Eduardo García Elosua jauna.
María Dolores García García andrea.

Ordezkoak:

Felisa Piedra Gao andrea.
Gregorio Martín Benito jauna.

Langile Abertzaleen Batzordeak (LABek) hautatutako kideak

Titularra:

Garbiñe Aranburu Irazusta andrea.

Ordezkoa:

José Luis Rezabal Zurutuza jauna.

Euskadiko Unión General de Trabajadores-ek (UGTk) hautatutako kideak

Titularra:

Pilar Collantes Ibáñez andrea.

Ordezkoa:

José Ramón Lopategui Martín jauna.



ENPRESABURUEN ALDETIK:

Euskal Enpresarien Konfederakuntzak (Confebaskek) izendatutako kideak

Titularrak:

Juan Ugarte Aguirrezabal jauna.
Jaime Fernández Alcedo jauna.
Francisco Javier Azpiazu Lasuen jauna.
José María Ruíz Urchegui jauna.
Arturo R. García Sanz jauna.
Fernando Raposo Bande jauna.
José Guillermo Zubia Guinea jauna.

Ordezkoak:

Jon Bilbao Saralegui jauna.
Matías Gómez Conde jauna.
Mikel Anderez Vélez jauna.
Gemma Zuazua Castelló andrea.
Enrique González Sal jauna.
Aitor Otaola Díaz de Alda jauna.
Virginia Múgica Conde andrea.

3. Kontseiluko pertsonala

Lan Harremanen Kontseiluak 2007an honako pertsonal hau zuen: koordinatzaile juridiko bat, azterlan sozioekonomikoen arduradun bat, teknikari jurista bat, administrazio buru bat, informazio, dokumentazio eta itzulpengintza arduradun bat, negozioazio kolektiboko teknikari bat, goi karguen idazkari bi eta lau administrari laguntzaile. Gainera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Precoko lurralde zerbitzuetan hiru arduradun dauzka behin-behineko pertsonaltzat.

Osoko Bilkuraren eta batzordeen jarduera

Lan Harremanen Kontseiluaren ohiko funtzionamendua Osoko Bilkuraren eta batzordeen jardueraren bidez gauzatzen da. 2007an zehar, aipatutako organo horiek ondorengo bilerak izan dituzte:

1. Kontseiluaren Osoko Bilkura

Kontseiluaren Osoko Bilkura urtean lau aldiz batzen da, ohiko bilera egiteko, Kontseilua arautzen duen legeak ezartzen duenaren arabera. 2007ko ekitaldian laugarren ohiko bilera zertxobait atzeratu zen, 2008ko lehen egunetaraino atzeratu ere, eta, ondorioz, ekitaldian zehar egindako bilerak hiru izan ziren. Ondoren bilera hauetan aztertutako gaien zerrendak azaltzen dira:

Martxoaren 28a. Aztertzeko gaiak:

1. Aurreko bileraren (2006ko abenduaren 28koaren) akta ontzat ematea.
2. 2006ko ekitaldiari dagokion Lan Harremanen Kontseiluaren aurrekontuaren behin-behineko likidazioa ontzat ematea.
3. Kontseilua, sindikatu eta enpresaburu erakundeek hautatu behar dituzten kideen ondorioz gertatzen den osaerari dagokionez berriztatzea.
4. Beste gai batzuk.

Ekainaren 20a. Aztertzeko gaiak:

1. Aurreko bileraren (2007ko martxoaren 28koaren) akta ontzat ematea.
2. Lan Harremanen Kontseiluaren 2006 urteko jardueraren memoria ontzat ematea (Kontseiluaren legeko. 12.2 h artikulua).
3. Beste gai batzuk.

**Irailaren 26a. Aztertzeke gaiak:**

1. Aurreko bileraren (2006ko ekainaren 20koaren) akta ontzat ematea.
2. 2006ko ekitaldiari dagozkion Lan Harremanen Kontseiluaren kontuak ontzat ematea.
3. LHKren 2008 urterako aurrekontu proiektuaren zirriborroa.
4. Beste gai batzuk.

2. Prestaketa Batzordea

Batzorde honek Kontseiluaren Osoko Bilkuraren bileren arabera egiten ditu bere bilera, besteak beste, Osoko Bilkuraren gai zerrenda prestatzeko ardura duelako. 2007an zehar ondoren adierazten diren egunetan bildu da:

- Martxoaren 7a.
- Ekainaren 7a.
- Irailaren 12a.
- Azaroaren 21a.

3. Txosten Batzordea

Txosten Batzordeak Kontseiluaren kontsulta funtzioa burutzeko ardura dauka. 2007 urtean zehar batzorde hau bilduz joan da, ondoren adierazten diren egunetan eta agertzen diren gaiak aztertzeke:

Otsailaren 1a:

- *Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Segurtasun eta Osasuneko Ikuskaritza sortzeko dekretu proiektua.*
- *Meategi, harrobi eta tunelen eremuan lan arriskuen aurreikuspenean araua ez betetzeagatik zigorrak ezartzeko prozedurari buruzko dekretu proiektua.*
- *Euskal autonomia erkidegoko kooperatibetan lan arriskuen aurreikuspenean araua ez betetzeagatik zigorrak ezartzeko prozedurari buruzko dekretu proiektua.*
- *Euskal Administrazio Publikoen eremuan lan arriskuen aurreikuspenean araua ez betetzeagatik zigorrak ezartzeko prozedurari buruzko dekretu proiektua.*

Martxoaren 28a:

- *Euskal Autonomia Erkidegoaren 2008 urterako lan jaien egutegi ofiziala onartzeko dekretu proiektua.*

**Apirilaren 25a:**

- *Langileek enpresetan parte hartzeko laguntzak ezartzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren agindu proiektua.*
- *Familiei laguntzeko lege aurreproiektua.*

Maiatzaren 2a:

- *Langileek 2007ko maiatzaren 27ko hauteskundeetan parte hartu eta beren ordain-sariak jaso ditzaten arauak ematen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren agindu proiektua.*

Maiatzaren 2a eta 10a:

- *EAEko laneko segurtasun eta osasunaren 2007-2010 plan estrategikoa (2007ko martxoaren 29koaren zuzenketak).*

Maiatzaren 10a:

- *Gizarteratzeko erakundeen arteko II. plana (2007-2009).*
- *Kultura ekintzailerako eta enpresak sortzeko laguntzei buruzko Dekretuaren bigarren aldaketarako dekretu proiektua.*

Ekainaren 7a eta 20a:

- *Besteren prebentzio zerbitzuen eta prebentzio sistemaren auditoria jardura garatzeko pertsona eta entitate espezializatuen erregistroa sortu eta arautzeko dekretu proiektua.*
- *Gipuzkoako lurralde historikoko bulegoen sektoreko hitzarmen kolektiboa Arabako lurralde historikora hedatzeko eskaera.*
- *Erakundeen arteko enplegu plana.*

27 de diciembre:

- *Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuen agindu proiektua, lanbide heziketako prestakuntza zikloen antolaketa eredu berria arautzen duena eta malgutasuna eskaintzen duena, prestakuntza eta lan-jardura bateratu ahal izateko.*

Aipatutakoak Kontseiluak bereak dituen batzordeak dira, baina hauekz gainera Precoren Batzorde Paritarioa ere Kontseiluan biltzen da, lanbide arteko akordio hau sinatu zuten erakundeek akordioaren kudeaketa Kontseiluaren eskuetan utzi baitzuten. Batzorde hori 2007 urtean martxoaren 28an bildu zen, Memoria honetan Precori buruz jarduteko kapituluaren bilera horren berri ematen delarik.

Kontsulta jarduera

1. Kontseiluaren kontsulta jarduera

Memoria honek aipatzen duen 2007ko ekitaldian zehar, Lan Harremanen Kontseiluaren kontsulta funtzioaren garapena, Txosten Batzordeak berak 2004ko martxoan hartutako erabaki batean ezarri eta onartu zituen irizpideen arabera izan da.

Akordio honen ikuspuntuaren arabera, Kontseilu osoaren iritzia eta Kontseilua osatzen duten kideen iritzi partikularrak bereizi behar dira, Kontseilua bera EAEn politika soziolaboraletarako berariazko kontsulta organoa izanik, kideen iritzia kide hori hautatu duen erakundearen iritzizat har badaitezke ere, ez baitira ezin bestean Kontseilu osoaren iritzia izango.

Lan Harremanen Kontseiluari 2007ko ekitaldian zehar eskatu zitzaizkion txostenak, iritzi hauen arabera burutu ziren, gai bakoitzean guztien iritzia zer den eta kide bakoitzaren iritzia zer dagokion bereiziz, eta akordioa lortu denean, akordio hori «Lan Harremanen Kontseiluaren irizpena» izenburupean jarri. Txosten hauen testua, txostena eskatu duen organoari bidali ondoren, Kontseiluaren web orrian jartzen da, interesaturik egon daitezkeen guztiek haren edukia era errazean ikusi ahal izan dezaten.

Hala, 2007ko ekitaldian zehar Kontseiluan hamabost txosten eskaera jaso dira. Eskaera hauek guztiak, Txosten Batzordeak onartu eta zegokion garaian Eusko Jaurlaritzari (zehazkiago adierazita Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari) jakinarazi zion kontsulta jarduera gauzatzeko prozeduran xedatutako epearen barruan aztertu ziren. Eskaera horietako baten kasuan, Familiei laguntzeko lege aurreproiektuarenean, alegia, Batzordeak iritzi zionaren arabera, ez zen egokia inolako txostenik egitea eta halaxe azaldu zen Eusko Jaurlaritzari gai horri buruz bidali zion erantzunean. Gainerako hamalau eskaerei dagokienez, Kontseiluan 2007an zehar hamahiru txosten eta irizpen bat eman ditu. Hau da, gorago azaldu denez, Hamahiru aldiz, emandako txostenean, Batzordeko kide guztien iritzi komuna eta kide bakoitzaren iritzi partikularra adierazten ziren; eta txosten horietako hamalagarrenean, horrezaz gainera, Kontseiluak gaiari buruzko irizpen bat eman zuen. Azken eskaera hori honako hau da, lanbide heziketako prestakuntza zikloen



antolakuntza eredua, prestakuntza eta lan jarduera bateratzeko aukera ematen duen eskaintza malguaz arautzen duen agindu proiektua.

Jarraian Lan Harremanen Kontseiluan 2007ko ekitaldian zehar jasotako txosten eskaeren zerrenda ematen dugu eta, kontsulta errazteko, Memoria honekin batera aparteko argitalpenean, eskaera horiei buruz Txosten Batzordeak prestatutako txosten definitiboen testuak editatu dira.

2. Txosten eskaerak

1. *Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Segurtasun eta Osasuneko Ikuskaritza sortzeko dekretu proiektua.*

Batzordeak proiektu honi buruzko txostena otsailaren 1ean eman zuen.

2. *Meategi, harrobi eta tunelen eremuan lan arriskuen aurreikuspenean araua ez betetzeagatik zigorrak ezartzeko prozedurari buruzko dekretu proiektua.*

Batzordeak proiektu honi buruzko txostena otsailaren 1ean eman zuen.

3. *Euskal autonomia erkidegoko kooperatibetan lan arriskuen aurreikuspenean araua ez betetzeagatik zigorrak ezartzeko prozedurari buruzko dekretu proiektua.*

Batzordeak proiektu honi buruzko txostena otsailaren 1ean eman zuen.

4. *Euskal Administrazio Publikoen eremuan lan arriskuen aurreikuspenean araua ez betetzeagatik zigorrak ezartzeko prozedurari buruzko dekretu proiektua.*

Batzordeak proiektu honi buruzko txostena otsailaren 1ean eman zuen.

5. *Euskal Autonomia Erkidegoaren 2008 urterako lan jaien egutegi ofiziala onartzeko dekretu proiektua.*

Batzordeak proiektu honi buruzko txostena martxoaren 29an eman zuen.

6. *Langileek enpresetan parte hartzeko laguntzak ezartzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren agindu proiektua.*

Batzordeak proiektu honi buruzko txostena maiatzaren 2an eman zuen.

7. *EAEko laneko segurtasun eta osasunaren 2007-2010 plan estrategikoa.*

Batzordeak proiektu honi buruzko txostena maiatzaren 10ean eman zuen.

8. *Familiei laguntzeko lege aurreproiektua.*

Txosten Batzordeak iritzi zionez, Eusko jaurlaritza eta Legebiltzarraren kontsulta organoa den aldetik, ez zen egokia zirriborro honi buruzko txostena egitea.



9. *Langileek 2007ko maiatzaren 27ko hauteskundeetan parte hartu eta beren ordain-sariak jaso ditzaten arauak ematen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren agindu proiektua.*

Batzordeak proiektu honi buruzko txostena maiatzaren 2an eman zuen.

10. *Gizarteratzeko erakundearen arteko II. plana (2007-2009).*

Batzordeak proiektu honi buruzko txostena maiatzaren 10ean eman zuen.

11. *Kultura ekintzailerako eta enpresak sortzeko laguntzei buruzko Dekretuaren bigarren aldaketarako dekretu proiektua.*

Batzordeak proiektu honi buruzko txostena maiatzaren 10ean eman zuen.

12. *Besteren prebentzio zerbitzuen eta prebentzio sistemaren auditoria jardura garatzeko pertsona eta entitate espezializatuen erregistroa sortu eta arautzeko dekretu proiektua.*

Batzordeak proiektu honi buruzko txostena ekainaren 21ean eman zuen.

13. *Gipuzkoako lurralde historikoko bulegoen sektoreko hitzarmen kolektiboa Arabako lurralde historikora hedatzeko eskaera.*

Batzordeak proiektu honi buruzko txostena ekainaren 25ean eman zuen.

14. *2007-2010 enplegu planari buruzko txosten eskaera.*

Batzordeak proiektu honi buruzko txostena uztailaren 12an eman zuen.

15. *Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuen agindu proiektua, lanbide heziketako prestakuntza zikloen antolaketa eredu berria arautzen duena eta malgutasuna eskaintzen duena, prestakuntza eta lan-jarduera bateratu ahal izateko.*

Batzordeak proiektu honi buruzko irizpena 2008ko urtarrilaren 11n eman zuen.

**Preco, gatazkak
ebazteko prozedurak**


Lan Harremanen Kontseiluak 2007 urtean ere Preco akordioa, Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide arteko akordioa, bere hiru lurralde zerbitzuen bidez kudeatu du. Akordioa Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariarik handieneko sindikatu eta enpresaburu konfederazio guztiek 2000ko otsailaren 16an sinatu zuten (2000ko apirilaren 4ko EHAren 66 zk.).

2004ko urteko Memorian hasiera eman genion irizpide bati eutsiz, kudeaketa honi dagozkion datuak parametro desberdin biren arabera aurkezten ditugu. Alde batetik, 2007ko ekitaldian Kontseiluaren lurralde egoitza guztietan jaso diren eskaeren berri ematen dugu eta kopuru hori aurreko urteetako kopuruekin konparatzen dugu, hala, Precoren prozeduretan bideratu diren lan gatazken bilakaeraren ikuspegia erakusten dugularik. Beste alde batetik, 2007an amaitu diren espedienteetatik abiatuak, Precoren kudeaketarekin zerikusia duten emaitzen azterketa kualitatiboagoa eskaintzen dugu.

1. Jasotako eskaerak

2007 urtean jasotako eskaera kopurua aurreko urtean jasotakoena baino txikitxoagoa izan da. Memoria honek aintzat hartzen duen ekitaldian zehar, Precon gatazka kolektiboko 353 eskaera sartu ziren (hau da, 2006an baino 11 gutxiago).

Edozertara ere eta abaguneari dagozkion gorabeherak alde batera utzirik, kopuruek adierazten dutenaren arabera, badirudi ofizialdutako gatazka kopuruak gorabehera erlatibo txikiak dituelarik, aurreko urteetako maila bertsuan dagoela oraindik ere. Zehazkiago esateko, 2001etik, hau da, Preco lan gatazka kolektiboetarako auzi bidea baino lehenagoko derrigorrezko bidetzat jarri zen urtetik, Memoria honek aintzat hartzen duen 2007 urtera arteko tartean, tramitatu diren eskaerak 2001eko gutxienezko 323etatik 2003ko gehienezko 377rainoko tartean daude. Denbora tarte honen barruan 2007 urtea hirugarrena dugu jasotako eskaerei dagokienez, 2003 eta 2006ren ondoren (377 eta 364 eskaera hurrenez hurren).

**Jasotako lan gatazka kolektiboko eskaerak: 2001-2006**

Aurreko urteetan ikus zitekeen joerari jarraiki, 2007 urtean zehar berriro ere esan daiteke Precon aurkeztutako gatazka kolektiboko eskaerak, EAEn formaldutako gatazka kolektiboen %100 direla ia (Zehazkiago adierazita, %99,4 dira). Preco, beraz, gatazka kolektiboak tramitatzeke bide bakartzat sendoturik dago. Izan ere, 2000. urtean sinatutako lanbide arteko akordioak auzibidea baino lehenagoko adiskidetzea bere gain hartu zuen, gatazka kolektiboek dagokienez, eta beraz egoera hori aukera horren berezko ondorioa da.

Jarraian erakusten dugun koadroan, aipatu ditugun eskaerak lurraldeen arabera banaturik aurkezten ditugu, eskaerok beren eraginpean hartzen dituzten langile kopuruei ere erreferentzia eginez.

		2005	2006	2007
EAE	Prozedura kopurua	344	364	353
	Ukitutako langileak	92.188	48.486	81.607
Araba	Prozedura kopurua	65	83	84
	Ukitutako langileak	44.212	21.004	27.033
Bizkaia	Prozedura kopurua	182	195	182
	Ukitutako langileak	26.137	20.438	45.349
Gipuzkoa	Prozedura kopurua	97	86	87
	Ukitutako langileak	21.839	7.044	9.225



Banako gatazkak

Batzorde Paritarioak 2003ko ekainean hartu eta, 2005eko apirilaren 27an luzaturik, oraindik ere indarrean dagoen erabaki orokorraren arabera, zenbait banako gatazka Precon tramitatzeke aukera dago. Honelakorik egin ahal izateko, aukera hori aintzat hartzen duten hitzarmen kolektiboak Batzorde Paritarioak erabaki orokor horrek dioenarekiko homologatu behar ditu.

Aukera horren babesean 2006 urtean Precoren historiako banako gatazkako lehen espedienteak tramitatu zen. Memoria honek aintzat hartzen duen 2007 urtean horrelako bigarrena tramitatu da, Arabako lurralde historikoan tramitatu ere, erabakian ezarritako baldintzak betetzen zituen kasu batean.

Tramitatu diren espedienteen kopurua, beraz, 364 izan da, haietako 363 gatazka kolektiboak eta bat banako gatazka izan direla.

Edozertara ere, datu hori lekukotza hutserako dela esan liteke ia, eta beraz, datozen atletan egiten den kudeaketaren azterketa gatazka kolektiboek dagozkie soilik.

2. Prozeduren kudeaketa

2004ko ekitaldiari dagokion memoriatik egiten izan dugun bezala, Precoko prozeduren kudeaketaren azterketa, 2007 urtean amaitu diren prozedurak kontuan harturik burutuko dugu. Aurreko irizpidetik honetara aldatzeko arrazoen berri 2004ko Memoria hartan ematen genituen eta, alferrikako errepikapenik ez egiteko, han azaldutzat emango ditugu. Kontuan hartuko ditugun prozedurak, beraz, 345 dira guztira. Haietako gehien-gehienak ekitaldi horretan bertan hasiak ziren, beste batzuk (35, zehazkiago esateko) 2006an hasiak zirela.

Prozedurak, amaitzeko modaren arabera

Lehen azterketa honetan, aztertutako prozedurak (345) amaitu ziren moduaren arabera banatuko ditugu. Hala, alde batean, tramitatu hasi eta hasierako fasean lurralde egoitzako arduradunaren aurrean amaitu zirenak jarriko ditugu (263, %76a) eta beste batean, Hasierako fase hori agortuta, alderdiek horrela erabakirik, Precoko zerrendetan dauden profesional baten laguntzarekin adiskidetze, bitartekotza edo arbitraje prozedura bat eragin zutenak (82, %24a).


Precoko berria ezarri zenetik, gatazka kolektibo batean esku hartzeko oinarrizko aukera bi daude: aurretiazko fasea, Precoko lurralde egoitzetako arduradunek burutzen dutena, eta, aurretiazko fase honetan gatazka ebazten ez bada, profesional independente baten aurrean burutzen den adiskidetze, bitartekotza edo arbitraje prozedura bat, profesionala Batzorde Paritarioak onartutako zerrenda edo kidego batean dagoelarik. Adiskidetze eta bitartekotzaren kasuan, aurretiazko fase honi adiskidetze saioa esaten zaio eta, agortzen denean, hori nahikoa da auzi bidean demanda jarri ahal izateko araudi prozesalak aurretiaz eskatzen duen adiskidetzea bete dela egiaztatzeko. Adiskidetze, bi-



tartekotza eta arbitraje prozedurak, berriz, borondatezkoak dira eta momentu horretan hasten dira, baldin adostasunik lortu gabe, alderdiek hala nahi badute. Horretarako, alderdiek ados jarrita, profesionalen zerrendak osatzen dituzten pertsonetako bat aukeratzaren dute.

2001 urteaz geroztik, profesional independente hauen parte hartze kopuruak behera egiteko joera argia erakusten du. Izan ere, kasuen portzentaje handi batean gatazkako alderdiek ez dute auzibidearen ordezkio edo osagarrizko borondatezko prozedurarik erabili nahi. Baina beste alde batetik, bada elementu bat norabide berean bultzatzen duena, hots: beharbada Precoren arduradunen aurrean egiten diren saioak praktikan adiskidetzeari jarduera bereganatuz joan dira, profesionalaren laguntzaz egindako adiskidetzeari kaltean, bereganatu ere, 2005 urtean adiskidetzeari mota hori ia desagertua zelarik ere.

2005 urtean zehar ezarri ziren lan ildoetako baten helburua joera hori zuzentzea eta horrelako prozedurak sustatzea izan zen. Hala, 2005eko Memorian esaten genuenez, ekitaldi horretako datuek erakusten bide zutenez, nolabaiteko joera aldaketa gertatzen ari zen. Zehazkiago adierazita, 2005 urtean profesionalaren laguntzaz burututako prozedurek 6 ehuneko puntuz igo ziren, aurreko ekitaldiaren aldean, eta %25era heldu ziren. Egia da 2006 urtean nolabaiteko atzerapena gertatu zela (%21), aurreko urtearekin konparaturik, baina esan behar da Memoria honek aintzat hartzen duen 2007 urtean, profesionalaren laguntzarekin burututako prozedurek prozedura guztien taldean hartzen duten portzentajea zerbait igo dela berriro ere. Zehazkiago adierazita, 2007an amaitu ziren prozedura guztietatik (esan denez, prozedura horiek 345 dira), aurretiazko fasean 283 (%76a) amaitu ziren eta 82 (%24) profesionalarekin zuzendutako prozeduretan. Datu hauek aurreko urtekoekin alderatuz gero, aipatu dugun joera ikusi ahalko da.






Prozeduren emaitzak. Prozedura guztiak

Bigarrenez, aurretiazko fasean zein profesionalarekin egindako prozedura batean konpondu diren eta azkenean konpondu ez diren prozeduren kopuru orokorreari buruzko informazioa eskaintzen dugu, prozeduren eragingarritasun mailari buruzko balorazioa egin ahal izateko.

Azterketa hau, berriro ere, 2007an amaitutako prozeduren buruzkoa da. Bada, gatazka-
ren konponketan (adostasunean edo laudoaren bidez) amaitu ziren espedienteak 114 izan ziren, hau da, espediente guztien (345en) %33a; eta, aldiz, Precoren bideetan, formalki behinik behin, gatazka konpondu gabe amaitu zirenak 231 izan ziren. Proporzio hau ondorengo grafikoaren bidez irudika daiteke:



Barra berdean bere baitan ebatzitako gatazkek biltzen ditu eta laranja koloreko barrak gainerakoak. Emaitzak konparatu ahal izateko, interesgarria izan daiteke esatea 2005ean gatazken %30a ebatzi zirela eta gatazka hauek 2006an %31raino heldu zirela¹.


Precoren bideetan formalki ebazten diren gatazken kopurua ezari-ezarian gorantz egiten ari dela ikus daiteke, 2001etik 2004rako tartean gertatzen zen joeraren aldean.

Ebatzitako gatazkek

Precon hartzen diren prozeduretako batzuk aurretiazko fasean amaitzen dira eta beste batzuk berriz, gero, alderdien ados jarrita izendatutako profesional batek parte hartzen dueneko prozeduretako batean, alegia; interesgarria da, beraz, gatazkaren ebazpena zein fasetan lortu den aztertzea.

Informazio hori ondorengo grafikoan islatzen da. Bertan, lehenagoko barra berdea, ebatzitako prozedurena, bitan banatzen da:


¹ Atal honetan 2006ko ekitaldiari buruz ematen ditugun datuetan, ekitaldi horri dagokion Memorian argitaratu ziren datuekiko zenbait desberdintasun egon daitekeela esan behar dugu, han egindako errore materialen batzuk zizendu baititugu.



Ikus daitekeenez, ebatzi ziren 114 gatazketatik, 66 hasierako fasean lortutako adostasunak izan ziren eta gainerako 48ak profesional independente batek esku hartu zueneko prozedura batean lortutako akordio edo laudoak, prozedurak adiskidetzeari, bitartekotzak zein arbitrajeak izan zitezkeelarik.

Ebatzi gabeko gatazka

Azkenik, ebatzi ez ziren gatazkei buruzko informazioa ere sailkatu egin dugu, Precon aurkeztutako eskaera batek normalean izango lituzkeen faseen arabera sailkatu ere. Grafikoki ondoren adierazten den moduan eman daiteke:



Lehen zatia hasierako fasean atzera egindako eskaerak dira, 40 hain zuzen ere. Normalean atzera egite hauek aurretiazko adiskidetze saioa egin baino lehen gertatzen dira, sarritan alderdiek, saiorako deia egin ondoren, bilera egiteko eguna baino lehen enpresan bertan akordio zuzena lortzen dutelako. Eskura dauzkagun datuen arabera, 2007an atzera egindako 40etatik azaldu berri dugun kausa honengatik 12 gertatu ziren.



Bigarren taldea ondore gabeko saio izena ematen diegun prozeduren taldea da. Kasu hauetan eskaera egiten zaion alderdiari era zuzenean dei egiten zaio baina bera ez da aurretiazko adiskidetze saiora joaten. 2007 urtean kasu hau 11 aldiz gertatu zen. Datu honen arabera, honelako ez agertzeak gero eta gutxiago dira eta beherako joera hori sendotuz doa 2004 urteaz geroztik (urte hartan ez agertzeak 37 izan ziren, 2005ean 27 aldiz gertatu zen hori eta 2006an 26 aldiz). Hala, EAEko lan harremanen subjektuek Precon gatazka kolektiboak bideratzeko tresnatzat jartzen duten konfiantza gero eta handiagoa dela ikusten da.

Hirugarrenik aipatu dugun taldean, alderdien egoitzetako arduradunen aurreko saioan biltzen dira, baina ez da gatazkarekiko adostasunik lortzen eta alderdiak ez dira ados jartzen, gure zerrendetako profesioaletako bat izendatu eta adiskidetze, bitartekotza edo arbitrajatzat aurrera egitekotan ere. 2007an hau 146 saiotan gertatu zen.

Gatazka ebatzi gabe amaitu ziren gainerako 34 prozedurak, profesionalarekin burututako prozedurak izan ziren.

Hasierako faseko saioak

Aurreko urteetan bezala, oraingoan bereizirik aztertuko ditugu Precoko prozedura mota nagusi biak, hau da, lurraldeko zerbitzuen arduradunen aurrean hasierako fase delakoan amaitzen direnak eta profesional independentearen gidaritzapean gauzaturako prozedura bat ekartzen dutenak. Izan ere, hasierako puntu honetan lehendabiziko muga ezarrita dago, gatazkako alderdiak ez diren eragileen ekimenaren intentsitateari dagokionez, eta horregatik egiten dugu bereizitako azterketa hau.


Preco akordioetako azkena sinatu zeneko 2000. urtetik hona metatutako esperientzia ikusirik, begi bistakoa dirudi, erraz uler daitezkeen arrazoiengatik, profesionalak gidaturako prozeduretan ebatzitako gatazken portzentajea, aurretiazko fasekoena baino handiagoa dela, arrazoizkoa baita pentsatzea, profesional batek esku hartzea borondatez onartzen duenak, oro har, akordioa bilatzearen aldeko jarrera argiagoa erakusten ari dela.

2007 urtean hasierako fasean eta gatazka ebatzi gabe amaitu ziren prozedurak 197 izan ziren, talde honetan adiskidetze saioa egin ondoren adostasunik gabe amaitu ziren 146 prozedurak ez ezik, atzera egindako 40ak eta prozedura eskatua zaion aldea etorri ez zelako ezin gauzaturakoak izan ziren 11 kasuak ere sartuta daude. Hala, fase honetan ebatzitako gatazka kolektiboen portzentajea %25a izan da (66 abeniko, eskatutako 263 prozeduren aldean). Portzentaje hau aurreko urtekoaren (%21,/) gaineratik dago nabarmenki, baita 2005eko %18,6aren gaineratik ere, argi eta garbi.

Edozertara ere, hasierako fasearen eraginkortasuna zehaztasun handiagoz neurtu ahal izateko, abeniko hauek benetan burututako prozeduren aldean jarri behar ditugu, hau da, ondore gabeko saioak eta atzera egindakoak alde batera utzirik.. Hala eginez gero, ebatzitako prozeduren portzentajeak %31raino igotzen dela ikusiko dugu (66 abeniko, benetan burututako 212 prozeduren aldean).



Aurretiatzko fase honetan amaitu diren 263 espedienteak amaitu diren modua, grafikoki honela irudika daiteke, hots:




Profesional batekin burututako prozedurak

Adiskidetzeak

Profesionalek lagundutako adiskidetzeen kopurua portzentaje nabarmenean jaitsi da 2007 urtean, 2006an egindako adiskidetzeen aldean. Hala ere, adiskidetze hauek 2004an eskatutako bi haiek baino askoz gehiago dira oraindik. 2005 urtean 24 eskatu ziren eta 2006an 23, haietako 14 adostasunez amaitu zirelarik; honek esan nahi du ebatzitakoen portzentajea %61 izan zela. 2007an profesionalek gidatutako 16 adiskidetze erregistratu dira eta haietako 9 ebatzi egin dira. Ikus daitekeenez, ebazpenen portzentajea (%56,3) azken urtekoa baino txikitxoagoa da, baina aurreko urteetakoak baino handiagoa ere bada, oraingoan ere. Hara hemen 2005etik 2007rainoko aldiko datu konparatuak:

2005etik 2007ra amaitutako adiskidetzeak






Bitartekotzak

Profesional batek lagundutako adiskidetze kopurua jaistearekin batera, 2007an bitartekotzen kopuruak gora egin du; izan ere, 2006an 45 izan zirela, Memoria honek aintzat hartzen duen urtean 53 izan dira.

2007 urtean 53 bitartekotza amaitu ziren, hau da, 2006an baino zortzi gehiago. Hala, igoera hau, ia profesionalak lagundutako adiskidetzeek izan duten jaitsieraren neurri berekoa da. Bitartekotza prozedura hauek batean, gatazkako alderdiek proposamena egin baino lehen atzera egin zuten. Beste batean ezinezkoa izan zen bitartekotza burutzea, alderdietako batek zuen jarrera kontuan harturik. Gainerako 51etatik 27tan proposamena onartu egin zen eta 24tan gaitzetsi. Hautsi da, beraz, argi eta garbi, 2005etik ikusten ari ginen bitartekotzen eragingarritasunaren gorako joera. Bilakaera hau ondoren erakusten dugun grafikoan islaturik dago. Zehazkiago adierazirik, eragingarritasun hori 2004an %46,2a izan zen, 2005ean %63,6a eta 2006an %68,9a; 2007an, aldiz, eragingarritasuna berriro ere %50,9ko mailara itzuli zen, hau da, profesional batek lagundutako adiskidetzea bezalako beste prozedura batek duen %58,3ko eragingarritasunaren azpian dagoela.

Grafikoki adierazirik, emaitzak 2004tik 2007ra konparatuz, informazioa honako modu honetara geratzen da:

Bitartekotzak amaitzeko modua (2004-2007)




Arbitrajeak

Azkenik, amaitutako arbitraje kopuruak gora egin du berriro ere. Kopuru hau 6raino jaitsia zen 2006an eta 13raino igo da, hau da, 2005eko 19en erdi bidean. Arbitraje hauek bat, aitzitik, ez zen laudoaren bidez burutu. Beste alde batetik, prozedura batean ezin izan zen alderdi batek eskatutako arbitrajerako bidea zabaldu, beste alderdiak onartu ez zuelako, eta prozedura hasierako fasean amaitu zen.

Alderdiek arbitroaren laudoarekin erakutsi duten adostasunari dagokionez, esan behar da 2007an lehen aldikoz emandako laudoetatik bati ere ez zitzaiola errekurtsorik jarri Precok aurreikusten duen hiru arbitroen batzordearen aurrean eta, beraz, ez ziren auzibidean aurkaratu ere. errekurtsio hau agortzea auzibidean aurkaratu ahal izateko

ezinbesteko baldintza baita. Aurkaratzea, dena den, ia ez da inoiz gertatu Precoko prozedurak gauzatuz joan direneko 21 urteetan, guk dakigula behin bakarrik jarri zitzaion laudo bati demanda, eta orduan ere demanda hori ezetsi egin zen.

Arbitraje kopuruaren bilakaera (2001-2007)



3. Lanbide arteko Akordioaren 6. puntuari buruzko Batzorde paritarioaren erabakiaren jarraipena

Zenbait hitzarmenek euren baitan gatazkak ebazteko borondatezko prozedurak erabiltzeari buruzko berezitasun batzuk dakartzate, batzuetan Precok xedatutakoa aldatu edo zehaztu egiten dutelarik; bada, Precoren 6. puntuak, Lanbide arteko Akordioak berezitasun horiek onetsi eta bere baitan hartzeko bidea da.

Batzorde Paritarioaren 2003ko ekaineko akordioa, berariazko mekanismo hau abiarazteko ahalegina izan zen: irizpide orokorrak ezarri zituen, haien markoan, hitzarmenek zekartzaten gatazkak ebazteko borondatezko prozedurei buruzko xedapenak homologatzeko eskaerak onetsi ahal izateko. Akordioa hasieran bi urterako aurreikusi zen eta 2005eko 27an espresuki luzatu zen, 2009 urtera arte luzatu ere.

Akordioa indarrean egon deneko urte hauetan, Batzorde Paritarioak berezitasun hauek bost onetsi ditu, beti ere 2003ko akordio orokorreko parametroen barruan eta han ezarritako baldintzak beteta, honako hitzarmen hauetan zeuden berezitasunak, alegia: Metro Bilbao, S.A. eta Gipuzkoako siderometalurgiaren industria, 2003 urtean bertan tramitatu zirenak, eta Talleres de Escoriaza, S.A. (TESA) eta Grupo Tubacex, Batzorde Paritarioak 2004 urtean onetsi zituenak. 2007ko martxoaren 28an egin zen bileran Precoren Batzorde Paritarioak Tarabusi, S.A. enpresaren hitzarmen kolektiboak dakartzan berezitasunak ere homologatzea onetsi zuen.

Orain arte onesteko aurkeztu diren berezitasunak, ikus daitekeenez, oso gutxi izan dira. Beste alde batetik, lehenago ere esana denez, 2006an Batzorde Paritarioaren akordio honen babesean aurkeztutako lehen banako gatazka tramitatu zen eta 2007an beste bat tramitatzeko eskaera aurkeztu da soilik.



4. Lan Harremanen Kontseiluaren egoitzetan egindako beste zerbitzu batzuk

Precoren prozedurak Kontseiluaren lurralde zerbitzuetan gauzatzen dira eta, era berean, sektoreko hitzarmen kolektiboek sortutako gero eta batzorde paritario gehiagoren egoitzatzat ere balio izaten dute. Hau Gipuzkoan gertatzen da erarik nabarmenean, bertan aipatutako hitzarmenik gehienek dagokien batzordearen egoitzatzat gure lurralde zerbitzua ezartzeko erabakia hartu baitute. Halakoetan, gure pertsonalak batzorde paritarioei zuzendutako eskaerak jasotzen dituzte eta haiek gure lokalak euren bilerak egiteko lekutzat erabiltzen dituzte.

Era berean gero eta gehiago dira, negoziazio saioak gure zerbitzuetan burutzea aukeratzaren duten sektoreko hitzarmen kolektiboetako negoziazio batzordeak. Praktika hau ere Gipuzkoako lurraldean dago hedatuena.

Hala, Kontseilua, EAEko negoziazio kolektiboko jarduerari bere lankidetzaren ematen saiatzen da, bitarteko materialak eta giza baliabideak euren eskutara jarritz, saiatu ere, eta gerora laguntza zerbitzu hau sendotzeko asmoa dauka, jarduera hori Kontseilua arautzen duen legeak ematen dizkion funtzioetako bat betetzea baino ez baita.

**Azterlanak
eta argitalpenak**

Lan Harremanen Kontseilua arautzen duen legeak xedatzen duenez, honek irizpenak, erabakiak, txostenak edo azterlanak egiten ditu, bai eskumena duten instantziek hala eskatuta, bai bere ekimenez.

1. Informazio soziolaboraleko plana

Kontseiluak 2007 urtean ere EAEko egoera soziolaboral orokorraren jarraitu eta aztertzeke bere jarduerari ekin dio. Jarraipen jarduera honetarako erabili diren irizpide orokorrak aurreko urteetan erabilitako berberak izan dira eta azterlan desberdinak egin eta argitaratu egin dira urte honetan ere, aurreko urtean egindako aldaketei eutsiaz, hobetzeko etengabeko ahaleginean.


Errealitate soziolaborala jarraitu eta aztertzeke gure lanaren ardatz nagusia negoziazio kolektiboa da eta, egia esan, ezin bestela izan, Lan Harremanen Kontseilua bezalako organo batean. Negoziazio kolektiboari buruzko informazio hau, berriz, benetan aberasturik geratzen da gure ustez, errealitate sozioekonomiko orokorragoaren testuinguruan jarri eta beronen aldagai esanguratsuenetako batzuekin lotzen baldin bada. Hala, EAEko errealitate soziolaborala aztertzeke gure lehen mailan, *Hileko informazio soziolaborala* delakoan, alegia, hitzarmen kolektiboak berriztatzeke prozesua erakutsi eta negoziazio horrek urtean zehar izaten dituen emaitza nagusien berri ematen da, beti ere hasira datozen beste informazio soziolaboral batzuen testuinguruan. Txosten honek hasierako laburpen koadro bat dakar eta gero zenbait fitxa eskaintzen ditu, ekonomiaren egoeratik hasi eta lan istripuetaraino zenbait gai aztertzeke, prezioak, lan merkatua, negoziazio kolektiboa, lan gatazkak eta enplegua erregulatzeko espedienteak ere aztertzen direlarik. Zehazkiago adierazirik, honelako hamaika txosten egiten dira, hilero-hilero, alegia, abuztuan izan ezik.

Hileko informazio soziolaborala



2006 urtean zehar berrikuntza bat gehitu genuen, hau da, hiruhilekoan behingo maiztasuna zuten lau txosten, *EAEko egoera soziolaborala* izena eman geniena, hain zuzen ere, eta 2007an ere txosten horiek egiteari eutsi diogu. Hiruhilekoan behingo txosten hauek hileko informazioak dituen atal berberak dituzte. Aitzitik, han, aipatutako laborpen koadroak dakartzan azalpen txiki batzuk egiten dira bakarrik eta hemengoetan, normalean deskribatzeko helburua izaten duten gogoeta zabalagoak eskaintzen dira, aztertzen diren aldagaien bilakaeraren gainean, txosten hauetan aintzat hartzen den denbora tartea, behin-behineko ondorioak atera eta joerak iradokitzeak aukera ematen baitu.

Hiruhilekoko txostena: *EAEko egoera soziolaborala*



Gai soziolaboraleko jarraipena egiteko plan hau burutzeko, urteko txosten soziolaborala egiten da, bertan ekitaldi osoari buruzko gogoeta kualitatibo xehatuagoa egiten delarik. 2007 urtean Kontseiluak 2006ko ekitaldiari buruzko txosten soziolaborala argitaratu zuen.



Urteko txosten soziolaborala



2. Negoziazio kolektiboari buruzko berriazko txostenak

Dagoeneko esana dugunez, Kontseiluak eskaintzen duen negoziazio kolektiboari buruzko informazioa, egiten dituen azterlan soziolaboral desberdinen barnean dago sarturik, txosten hauek gainera haren testuingurua osatzen dutelarik, eta hala, negoziazio kolektiboa halako txostenen atal bat da beti.

Haatik, ez da azaldu behar zergatik negoziazio kolektiboa LHKren azterketa jardueran arreta eta etengabeko azterketarako gaia den, behar ez diren errepikapenei alde egin behar bazien ere. Hala, Kontseiluaren web orrian bada negoziazio kolektiboaren jarraipen eta azterketarako berriazko espazio bat eta, beste alde batetik, urte bakoitzaren hasieran aurreko ekitaldiko negoziazio kolektiboko prozesu eta emaitzen balantzea burutzen da, aurreko urte horri buruzko behar bezain datu fidagarri eta orokorrak eskura eduki bezain laster. Bistan denez, 2007 urtean balantze hori 2006ari buruzkoa zen.

Euskadiko negoziazio kolektiboaren balantzea



EAEko negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko azterlana

Aurreko ataletan aipatu dugun azterketa lan honen markoan, Lan Harremanen Kontseiluaren azterlan zerbitzuak, besteak beste, bi urtean behin negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko azterlana prestatzen du. Azterlan honetan, azken batean, negoziazio eremuak identifikatu eta soldatako langileak eremu horietan kokatzea da helburua. Azterlan hau oinarritzko tresna dugu negoziazio prozesuen jarraipen lana egiteko eta aztertzen dugun informazioa metatu eta prozesatzeko erabiltzen ditugun datu baseak elikatu eta hobetzeko. Azterlan honen azken eguneratzea 2007an zehar burutu da, 2006ko datuak zituelarik, eta Kontseiluak egiten dituen azterlanetan islatu da, baita web orrian eskaintzen duen negoziazio kolektiboari buruzko informazioan ere.

Negociazio kolektiboa LHKren web orrian etengabe agerian

Kontseiluaren web orrian «Negociazio kolektiboa» izenburupean, aipatu berri dugun bezala 2007an zehar eguneratu den negoziazio kolektiboaren egituraren mapa erakusten da eta, halaber, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren eta Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioaren web orrietarako esteken bidez, EAEn aplikatzeko diren sektoreko hitzarmen kolektiboen testuetara heltzeko aukera ere eskaintzen da.

Era berean, hitzarmen kolektiboen berriztapena garatzeko moduaren berri eta une bakoitzean negoziaturik eta negoziatzeko dauden hitzarmenei dagokionez dagoen egoeraren berri ere ematen da, baita data bakoitzera arte burututako negoziazioaren emaitza nagusiei —itundutako soldata eta lanaldiei— buruzko informazioa ere.

The screenshot shows the website for 'lan harremanen kontseilua consejo de relaciones laborales'. The navigation menu on the left includes: Nortzuk garen, Arautzeko xedapenak, Osaera, Negoziatu akordioak, LHKren adierazpenak, **Negociazio kolektiboa**, Preco, Kontsulta jarduera, and Azterlan-argitalpenak. The main content area features a quote by Huxley: "Jakitea erraz samarra da. Nahi izatea eta norberak nahiko lukeenaren arabera jokatsa gogorragoa da beti." Below this is a section titled 'azken jarduerak' (latest activities) with a list of news items: 2008/04/11 - LHKren datu base soziolaborala eguneraturik eta 2008ko otsaileko hilean behingo informazio soziolaborala; 2008/04/07 - LHKren azterlana EAEko sindikatu hauteskundeei buruz; 2008/03/11 - Preco ko Batzorde Paritarioaren bilera: enpresetan sindikatuen afiliazioa egiaztatzeko protokoloa; and KONTSEILUAREN JARDUERA AZKEN HAMABI HILABETEETAN.



Gainera, 2006 urtetik aurrera negoziazio kolektiboaren gaineko atal honetan funtzio bi dituen azpiatal berria gehitu da, hots: negoziazio kolektiboaren jarraipen lana garatzeko oinarritzko kontzeptuak ulertzen eta erabiltzen laguntzea, batetik, eta bestetik hitzarmenak berritzatzeko prozesuen bilakaerari buruzko azterketa egokitzen deneko metodologia alderdi nagusiak ere ulertzen eta erabiltzen laguntzea.

Azkenik, Kontseiluak maiztasun desberdinez egiten dituen eta lehenago aipatuak ditugun gai desberdinei buruzko txostenak ere, Kontseiluaren web orriak dituen atal desberdinen bidez, guztien eskura jartzen dira.

3. Beste azterlan batzuk

EAEko hauteskunde sindikalen eta berauen prozesu eta emaitzen azterketa

Lan Harremanen Kontseiluaren azterlan zerbitzuak 2007 urtean zehar EAEko hauteskunde sindikalei buruzko azterlan bat prestatzeko lanean aritu izan da. Kontseiluak lehen aldiz ekin dio honelako azterlan bati eta, beste alde batetik, EAEn egiten den bigarrena da, 1985ean Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Sailaren Soziologia Prospekziarako Kabineteak Andoni Kaiero irakasleak prestatutako lana argitaratu zuenez gozotik. Kontseiluaren azterlan hau 2008aren hasieran argitaratu da.



Txostenak ibilbide luzea egiten du hauteskunde sindikalen gaian barrena, gai hori ikuspegi desberdinetatik aztertuz, hots:

- Hauteskunde sindikalek dituzten eta izan dituzten funtzio, aldaketa eta berezitasunen gaineko azterketa laburra.
- Hauteskunde sindikalen EAeko enpresa ehunduran duten hedadurari buruzko azterketa.
- Hauteskunde prozesuak berak.
- Aipaturiko prozesu horiek generoaren ikuspegitik ikusita.
- Hauteskunde sindikalen emaitzak beren marko historikoan jarrita.
- Ondorioetarako kapitulu bat.
- Metodologia kapitulu bat.
- Hauteskundeen 2002ko eta 2006ko abenduko emaitzak eta azterlana egiteko balio izan duten gainerako datuak dakartzan estatistika eranskin bat.

**Instituzio
jarduera**

Kontseiluak 2007an izan dituen instituzio jardueren artean, honako hauek nabarmen daitezke:

2007 urtea. Foro Social Aranzadi. Idazkari nagusiak foro honetan parte hartu zuen 2007an zehar.

2007 urtea. Mobbing-aren behatokia. Kontseiluaren idazkari nagusia 2007 urtean zehar Mobbing-aren behatokiaren kidea izan da.

2007/02/28. Ekonomiaren euskal behatokia. Lan jardunaldiak Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak antolatu zituen eta bertara Kontseiluko idazkari nagusia eta azterlan sozioekonomikoen arduraduna joan ziren.

2007/09/04. LHK eta LO (Danimarkako Hjorring-eko Langileen Konfederazio Orokorra) erakundearen bilera. Aztertu zen gaia «Enpleguaren arloa etengabe garatzeko inspirazioa» izan zen eta bileran Kontseiluko idazkari nagusia eta koordinatzaile juridikoa izan ziren.

2007/09/20. Jardunaldiak: *Berdintasun legeak:bereizkeriaren kontrako borrokatik eskubide desberdiner*a. Jardunaldiak Bizkaiko Abokatuen Bazkunean burutu ziren, Legelarien Euskal Kontseiluak Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak eta Jazarpen moralaren euskal behatokiak antolaturik. Kontseiluko idazkari nagusiak parte hartu zuen, ondorengo gaiari buruzko ponentzia emanez: «Emakume eta gizonen arteko benetako berdintasunerako lege organikoa eta lege honek negoziazio kolektiboan duen eragina».

2007/10/03-05. Lan gatazkak ebazteko organismo nazionalen XI. jardunaldiak. Jardunaldi hauek ORECLA-k, lan gatazkak auziaz kanpora ebazteko Kantabriako organismoak antolatu zituen eta bertara, Kontseiluaren idazkari nagusi eta koordinatzaile juridikoarekin batera, Kontseiluan ordezkaturik dauden enpresaburu eta sindikatu erakunde bakoitzetako kide bana joan zen.



2007/10/17. Lehen jardunaldi teknikoak: negoziazio kolektiboa eta administrazio publikoen jarduera. Jardunaldiak andluziako Lan Harremanen Kontseiluak antolatu zituen eta bertara LHKren azterlan sozioekonomikoen arduraduna joan zen.

2007/10/17. San Prudencio Fundazioaren Foro Soziolaborala. Kontseiluko idazkari nagusiak ponentzia egileztat parte hartu zuen.

2007/10/18. Lan arloko jurisdikzioari buruzko elkargune eta eztabaidarako foroa, Bote-re Judizialaren Kontseilu Nagusiak antolatua. Kontseiluko idazkari nagusia joan zen eta mahainguruko ponentzia bat eman zuen.

2007/11/09. IX. ate irekiko jardunaldiak: Hitz egin dezagun fibromialgiatz eta y astenia kronikoaz. Kontseiluko Lehendakariak, Martin auzmendik, parte hartu zuen, «Emakumea eta lana. argiak eta ilun guneak dituen errealitatea» izeneko ponentzia emanez.

Aurrekontuei buruzko informazioa

Lan Harremanen Kontseiluak ekonomia eta finantza autonomia dauka Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen barruan eta haren jarduera batez ere aurrekontu horietatik datozen diru laguntzen bidez finantzatzen da.

2007ko ekitaldian Kontseiluak jaso dituen diru laguntzak guztira 2.469.572 euro izan dira, ekitaldi horretarako Euskal Autonomia Erkidegorako aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 28ko 9/2006 Legeak esleitu zion zenbatekoaren arabera.

Lan Harremanen Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2006ko abenduaren 28ko bileran Kontseiluaren 2007rako aurrekontua onartu zuen. Jarraian aurrekontu hori xehaturik ematen dugu:

**1. Lan Harremanen Kontseiluaren 2007ko ekitaldirako aurrekontua****Sarrerren aurrekontua**

<i>IV. KAPITULUA</i>	
Transferentzia arruntak	2.358.279 €
<i>V. KAPITULUA</i>	
Ondare sarrerak	8.000 €
<i>VII. KAPITULUA</i>	
Kapital transferentziak	109.068 €
<i>VIII. KAPITULUA</i>	
Finantza aktiboen aldakuntza	295.144 €
GUZTIRA	2.770.491 €

Gastuen aurrekontua

<i>I. KAPITULUA</i>	
Pertsonal gastuak	1.017.159 €
<i>II. KAPITULUA</i>	
Jarduera gastuak	1.436.988 €
<i>VI. KAPITULUA</i>	
Inbertsio errealak	304.344 €
<i>VIII. KAPITULUA</i>	
Finantza aktiboen aldakuntza	12.000 €
GUZTIRA	2.770.491 €



2. 2007ko aurrekontuaren likidazioa*

SARRERA ARRUNTAK.....		2.395.216 €
Transferentzia arruntak.....	2.359.976 €	
Beste sarrera batzuk.....	35.240 €	
GASTU ARRUNTAK.....		2.112.127 €
Pertsonal gastuak.....	873.937 €	
Jarduera gastuak.....	1.238.190 €	
AURREZKI GORDINA.....		<u>283.089 €</u>
KAPITAL SARRERAK		
Kapital transferentziak.....		109.596 €
KAPITAL GASTUAK		
Inbertsio errealak.....		7.806 €
FINANTZATZE GAITASUNA.....		<u>101.790 €</u>
FINANTZA ERAGIKETAK (SARRERAK)		
Finantza aktiboen aldakuntza.....		<u>7.012 €</u>
FINANTZA ERAGIKETAK (GASTUAK)		
Finantza aktiboen aldakuntza.....		<u>(17.000 €)</u>
AURREKONTUAREN SUPERABITA.....		374.891 €

(*) Aurrekontuaren likidazio hau behin-behinekoa da oraindik.

